

Jagoba Arrasateren tanta

Amagoia MUJIK
TELLERIA

Tanta txiki bat itsasoan. Hori da Jagoba Arrasate –eta beste batzuk– eliteko futbolaren itsaso zalapartatsu horretan. Euskartik eta euskaraz aritzen den entrenatzaila, ospatzeko bertsotan egiten duena. Eta horrela ematen dio, natural, euskarari hauspoa. Gure jendartean futbola den zera erraldoi horretan, poz kolektibo baten zurrunbiloan, jo eta tipoa euskaraz eta bertsotan. Ez da ausarta edo militantea, euskalduna da.

Akaso batzuei kosta egiten zaie hori ulertzea. Agian euskara hizkuntza ederra iruditzen zaie, preziatua, babestu beharrekoa, bitxi bat, okasio bereziatarako janzten den perlatxo hori. Beste batzuei ez zaie hizkuntza serioa iruditzen, gauza serioetarako hizkuntza –eta fut-

bola gauza oso serioa da, noski–. Traba egiten ez dien bitartean, toleratu egiten dute, baina ez dute asko behar euskarekin gogaitzeko.

Batzuei zein besteei kostatu egiten zaie ulertzea euskarak balio duela haserretzeko, gezurra esateko, barrez lehertzeko, hasperen egiteko, pozez zoratzeko, kexatzeko eta baita eliteko futbolerako ere.

Badakit tantatxo bat dela itsasoan, ez naiz hain inozoa. Baina Arrasatek euskalduna dela garbi uzten duen bakoitzean, parean dituen milaka eta milaka pertsonak –ez diote euskaragatik begiratzeko, futbolagatik baizik– tokiz mugitzen dira pixka bat. Batzuei euskara piztuko die agian. Beste batzuei, euskara ikusteko duten modua aldatuko die.

Hain entrenatzaile ona eta jatorra bada eta euskara hainbeste maite badu, akaso ez da hain txarra izango hizkuntza txiki malapartatu hori...

Entrenatzaile edo jokalaria batek jendaurrean eta eliteko futbolaren anfiteatroan euskaraz egiten duen bakoitzean, begi pare bat piztu egiten da. Norbait poztu egiten da, harrotu, hunkitu, kontzientziatu, konbentzitu, animatu, lotsatu, zalantzan jarri...

Iruñetik urrutixeago joan da Jagoba Arrasate eta pena hartu du euskarak, badakielako isilxeago ibiliko dela aurrerantzean. Asier Villalibrek esan zien milaka futbolzaleri, «zein ederra den zuek euskaraz entzutea». Bada, ispilu-mispilu, «zein ederra den zuek euskaraz entzutea». Eta zein garrantzitsua. •

Palestinako mugak gorabehera

Koldo SAGASTI

Pasa den asteartean Espainiako Lehen Ministroak, Pedro Sanchezek, agerraldi historiko batean, handikiro adierazi zuen Palestinako estatua aitortu egiten zuela; eta lehenago sekula ez bezala, gainera, zehaztu egin zuen zein mugatan: 1967ko gerraren aurretikoetan. Esan gabe doa onarpenak modu inplizituan dakarrela, era berean, Israelgo estatua ere onartzen duela, gainontzeko eremuetan, Palestina historikoaren luraren %80an, alegia; eta horretan datza, hain zuzen, onarpenaren injustizia. “Bi estatuen konponbidea” deritzotenak bidegabeheria historikoa lekarke bere barnean, armen indarrez kolonizatutako lurraldea onartuko liokeelako indar okupatzaileari, eta talka zuzena egingo lukeelako zazpi milioi palestinar erbesteratari

NBERen 194. ebazpenak onartzen dien itzultzeko eskubidearekin. Baina zentzugabea izateaz gain, gaur egun bidearazina ere bada.

67ko mugak balizko bi estatuen arteko marratzat ezartzea ez da kontu berria. Isaac Rabinek eta Jaser Arafatek izenpetu zuten 1993an, Oslon. Eta zero garren minututik israeldarrek argi erakutsi zuten sinatutakoa betetzeko inolako borondaterik ez zutela. Ondorengo hogeita hamaika urteotan eremuaren %80tik %90era pasa dira, orduko mugak errespetatu ez eta Zisjordaniako lurak anexionatzen dituen harresia eraiki dute, eta milioi erdi kolonorentzako kokalekuak sakabanutu dituzte Jordanetik mendebaldera, behinolako konponbide proiektua erabat ezinezkoa bilakatu arte.

Duela hiru hamarkada hilda jaio zen egitasmo bat berriro mahai gainean jartzea ezin da esan bereziki ausarta denik, baina aurrerapauso bat izan liteke, baldin eta koherentziaz jokatzeko borondatea baldin balego. Eta jokabide koherentea litzateke onartu berri diren mugetatik harago indar okupatzailearekin negoziotetan dabiltzan espainiar konpainiei kontu eskatzea, besteak beste CAFi. Espainiar Gobernuak Palestinari aitortu berri dizkion eremuetan azpiegitura iraunkor bat eraikiz, Beasaingo enpresa Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren aurkako krimen bat burutzen ari zen orain arte. Orain, horrez gain, Espainiako legezketasuna ere urratzen ari da, eta Sanchezek legezketasun horrekiko koherentziaz jokatu beharko luke, bere adierazpena sinisgarria izango bada. •